



■ HERNANIALDEKO AEK

Zozketa, igandean

Urtero bezala, mariskada zozketatuko du Hernialdeko AEK-k, igandean. Postua jarriko du Hernaniko Plaza Berrin, 11:30-14:00 eta Plazan, 18:30etatik aurrera. ||

■ HERNANI

Bidea, moztuta

Asfaltatze lanak luzatu direla-eta, bide moztetak izango dira gaur: Ibarluze poligono atzeko zubi txikia pasa eta Lastaola poligonora bidean eta Goiko Lastola baseritik Onyipe baserri bidean. Lastaola poligonoko sarrera nagusia irekita egongo da eta Okendoenea-Altzueta bidea erabili ahal izango da, Elorribatik pasata, Lastaolara joateko. ||

Azkenean grebarik ez, garbitzaileek

ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek greba mugagabea iragarri zuten gaurtik aurrera, Gipuzkoako garbiketa eta zabor bilketa alorrean, baina atzo lortutako azken akordioei esker, bertan behera geratu da. Bihar, azalpen gehiago. ||

Lizentziak gaur, Zumitza TTk

Kide kafetegian jarri dute zita gaur Zumitza TT taldeak, 19:00etatik 20:00etara, lizentziak berri-etu eta informazioa emateko. ||

Inmakuladan festa, gaur

Gabonetako jaialdia egingo dute gaur Inmakuladako ikasleek, 15:00etan hasita, Sandiusterrin. Kantuan ariko dira, eta ondoren, apaingarriak ikusgai jarriko dituzte. ||

■ ASTIGARRAGA

Sagardo Plazako jolastokian, zer?

Sagardo Plazako jolastokian zein elementu jarri erabakitzeko, ostiralean emango die bozkatzeko aukera, Astigarragako Udalak, auzotarrei. Plazan bertan egongo dira, 12:00-14:00 eta 19:00-20:00 orduetartean. Hiru proposamen, aukeran. ||

■ HERNANI NEGUKO EGITARAUA

«Eskaintza zabalagoa», oporraldirako

Neguko oporraldirako egitaraua aurkeztu zuten atzo, Hernaniko Udaleko sail ezberdinek osatuta. Arlo guztietan izango da ekintzarik, eta adin guztietarako moduko programa prestatu dute.

ETZI hasiko da, ostiralarekin, Hernanin neguko oporraldirako prestatu duten egitarau berezia; «zabalagoa eta osatua» aurten. Hala definitu zuen Garazi Etxarri Gazteria zinegotziak, atzo liburutegian egin zuten aurkezpenean. Izan ere, sail ezberdinen artean osatu dute programa, arlo guztietan izan dezaten ekintzarik, Hernaniko haur, gazte eta helduek.

Hori horrela, Etxarrik berak aurkeztu zituen Gaztelekuak prestatutako ekintzak; tartean urte bukaerako festa, abenduaren 29an; edota Pio Barojan eskalada, urtarrilaren 3an.

Kiroldegiko ludotekan, berriz, familia osoarentzako guneak izango direla nabarmendu zuen Manolo Ayerbek. Eta berdin urtarrileko Biteriko bi emanaldiak ere: *Ninika* dantza saiorako eta *Drag-e uraren bila* antzerkia, helduentzat ere interesgarriak izan daitezkeela nabarmendu zuen Agurtzane Aizpuruk: «Gabonetako programazioa indartu da, arte diziplina ezberdinei tokia eginez, eta adin guztietarako».

Liburutegiak, azkenik, komiki tailerra antolatu du urtarrilak 4 eta 5erako, 11:00etatik 12:30etara, Axpiren eskutik. ||



Sail ezberdinetako arduradunak, atzoko aurkezpenean, liburutegian.

ABENDUAK 22, ostirala
17:00, 'Hernani' Musika Eskola Publiko ikasleak, herriko kaleetan barrena.
22:30, Kontzertua, Biterin: Esne Beltzak 10 urte. Sarrerak agortuta.

ABENDUAK 23, larunbata
22:30, Kontzertua, Biterin: Esne Beltzak 10 urte. Sarrerak agortuta.

ABENDUAK 26, asteartea
10:00-13:00, Ludoteka, kiroldegian.
17:00, Desioen paretan. 12 urtetik gorakoentzat, Gaztelekuak.

ABENDUAK 27, asteazkena
10:00-13:00, Ludoteka, kiroldegian.
17:00, *Hi selfie!* ginkana. 12 urtetik gorakoentzat.
17:00, Zinea Biterin: *Igelaren erresuma*. Familia osoarentzat.

ABENDUAK 28, osteguna
10:00-13:00, Ludoteka, kiroldegian.
11:00, Sukaldaritza tailerra. 12 urtetik gorakoentzat, Gaztelekuak.
16:00 eta 18:00, Antzerkia: *Go!azen* 4.0. 7-12 urte bitartekoentzat, Biterin. Sarrerak agortuta.

ABENDUAK 29, ostirala
10:00-13:00, Ludoteka, kiroldegian.
17:00, Urte bukaerako festa. 12 urtetik gorakoentzat, Gaztelekuak.

URTARRILAK 2, asteartea
11:00, Ipuin kontaketa, Biterin. 3-4 urte.
11:30, Ipuin kontaketa, Biterin. 5-7 urte.
17:00, Mahai jolasak. 12 urtetik gorakoentzat, Gaztelekuak.

URTARRILAK 3, asteazkena
16:00, Eskalada. 12 urtetik gorakoentzat, Pio Baroja kiroldegian.

17:00, Dantza, Biterin: *Ninika*, Elirale konpainia. 3 urtetik gorakoentzat. 2,7 euro.

URTARRILAK 4, osteguna
11:00, Komiki tailerra, Biterin. 10-14 urtekoentzat. Izenematea doan, liburutegian.
17:00, Arratsalde musikatua. 12 urtetik gorakoentzat, Gaztelekuak.
17:00, Haur antzerkia, Biterin: *Drag-e uraren bila*. 4 urtetik gorakoentzat.

URTARRILAK 5, ostirala
11:00, Komiki tailerra, Biterin. 10-14 urtekoentzat. Izenematea doan, liburutegian.

■ GOIZUETA-ARANO GABONAK

Gabonetako oporrak hasteko, jaialdia eskolan

Ostiralean Maridomingiren bisita jasoko dute Goizuetako Xalto eskolan, eta kantu jaialdia egingen dute. Bestalde, gaur bukatuko da Goizueta eta Aranoko Eguberrietako tailerretan izenemate epea.

KONTURATZERAKO iritsi dira Gabonak. Goizuetako Xalto Eskolan ostirala izanen dute oporren aurreko azken klase eguna, eta ospakizunetan murgilduta ibiliko dira. Haste-

ko, 09:30etan Maridomingiren bisita jasoko dute, eta gero, 11:00etatik 13:00etara, kantu jaialdia egingen dute.

Bestalde, hilaren 26 eta 27an Eguberrietako tailerrak

izanen dira, eta gaur da izena emateko azken eguna. Aranon hilaren 28an egingen dira tailer hauek, eta izena emateko Ainhoa Ansarekin jarri behar da harremanetan.

Ostiralean, antzerkia Bestalde, Goizuetako azaro kulturalari segika, antzerkia izanen da ostiralean, 18:30etan ganbaran: *Zera... Nola esango dizut, bada?* ||

K
ATZA

Nagusia 32, ASTIGARRAGA
943 55 49 89
lkatzataberna@gmail.com

GNOMOS

PAPER DENDA

Pelotari, 11 Astigarraga
943 55 38 05

sulabe

Valella
okindegia

Nagusia 27
Astigarraga
943 33 24 10

11

kronikalari
BAT
€uro
BAT

AZAROAREN 18TIK ABENDUAREN 27RA

